

Bukaeratik hasiko gara, atzetik aurrera. Eta bukaera batekin. Kontrazalean, Dom Campistronek urte hasieran istripuz hil zen Diabolo Kiwi taldeko Leire Iribarne musikari adiskideari egin dio omen. Iñigo Martínez Peña filosofoak *Glokalia*-ko bere txokotik jarraitzen dio, *selfie*-ak eta *like*-ak eta horien beharrak eta morrontzak aztertzen, identitate likido eta sustraigabetuen garaio-tan, irudia, *selfie*-a bera –norberaren buruaren irudia beti, nonahi eta zernahi moduz–, aldi berean, paradoxikoki, sustrai erauzle eta helduleku bihurtu ote zaigun galdetzeko, eta, hortik, bizitzeko eta izateko modu garaikide oso bat eratortzen ez ote den pentsatzen hasteko.

Maialen Akizuk, berriz, *Kultura* atalean, Arantza Santestebanen *918 gau* filma, Ines Osinaga, Olatz Salvador, Itziar Garaluce eta Lorea Argarateren *Mauriziaketzdauinorhil* musika ikuskaria, Korrikaren baitan Txakur Gorria kolektiboak osatutako *Hitzekin* ikus-entzunezkoa eta Oier Arantzabalek Xabier Erkiziari *Barruan gaude* podcasterrako egindako elkarrizketa zentzumenen eta sentipenen taxonomia zalantzan jartzeko eta zabaltzeko baliatu ditu, sentitzeko, hunkitze-ko zein ukitzeko ohiko moduak –entzun, ikusi, ukitu, usaindu eta dastatu–, agian, gutxiegi direlakoan.

«Zergatik hain gutxi?» galdera egin zuen 1965ean Alice Rossi soziologoak emakumeak zientzian duen presentziaren aurrean. Maider Eizmendi EHUKo irakasle eta ikertzaileak gurean kokatu du galdera, eta ikerketa doitu bat egin: *Berría* egunkarian, 2014-2018 tartean, emakume zientzialariak zenbat eta nola agertu diren aztertu du. Gutxi dira oraindik, gizonezkoekin alderatuta, baina goranzko joera argia da. Kopuruak emendatuz doaz, beraz. Baina zer dago kopuruaren atzean? Nola ageri dira? Ondorio esanguratsu bat: albisteen titularretan oso gutxitan agertzen dira, ahotsarekin ere eskas, eta zientziaz berariaz hizketan ere behar baino gutxiago. Zenbat eta nola beti ez dira ezkontzen-eta.

Kopuruari eta nolakotasunari erreparatu dio Xabier Eizagirrek 2020ko liburugintzaren azterketan. Pandemiaren urteak izan ditu ondorioak; esate batera, euskarazko liburu ekoizpenak gora egin du %11,4 puntutan. Eta harrigarri gerta daiteke Espainiako zein

Frantziako liburuen ekoizpenak %9 egin duela behera. Sistema desberdinak diren seinale.

Poeta fundazional bat, Amaia Lasa. Elkarrizketa egin dio Amaigoia Gurrutxagak euskal militante akrata, feminista erradikal, iraultza txiki-handien eragile eta idazleari. Geure historia politiko eta kulturalaren mataza osatzen du Lasak bere bizitzaz eta bere pentsaeraz egiten duen kontaketa biziak. Behinola euskaraz eta feminismitik lehen letrak idatzi zituenak memoria sentikari bat osatu du *Historia bizia* saileko elkarrizketa luzean. Historia hasieratik hasten baita, aurretik atzera, beti hasiera batekin.